

EUSKO JAURLARITZAKO JUSTIZIA SAILAK EZ DU LAN ARRISKUEN PREBENTZIORAKO 31/95 LEGEA BETETZEN, EUSKAL AUTONOMI ERKIDEGOKO JUSTIZIAKO LANGILEON OSASUN ETA SEGURTASUNA ARRISKUAN JARRIZ.

Eusko Jaurlaritzako Justizia sailak (kontseilaritza berberean, Lan eta Gizarte Segurantzaren Saila aurki ditzakegu) ez du betetzen Lan-Arriskuen Prebentziorako legea.

Lege honen helburua langileon lan baldintzen hobekuntza sustatzea da, lanean daukagun segurtasun eta osasun babes maila jasoz.

Eusko Jaurlaritzak, aukera daukan bakoitzean, ozenki aldarrikatzen du bere lehentasunetako bat Lan Arriskuen Prebentzioa dela, baina Justizia Sailak aldiz, legearen arau guztiak alde batera uzten ditu, bere menpe dauden langileei segurtasun eta osasun arloan eskubideak murriztuz.

Gauzak horrela, legea betetzea derrigorrezkoa izan arren, gaur egun, Eusko Jaurlaritzako Justizia Sailak ondorengo guzti hauek garatu edo bete gabe dituela salatu nahi dugu:

- ❖ Saileko kudeaketa orokorreko sisteman integratutako PREBENTZIO PLANa.
- ❖ Laneko higiearen, osasunaren zaintzaren, ergonomia eta arrisku psikosoziologikoen , ebaluaketak. Segurtasun ebaluaketa gaurkotua.

[Para más información, pulsa aquí / Informazioa sakontzeko, sakatu hemen.](#)

48001 **BILBAO**, Buenos Aires, 6-5ª (Palacio Justicia), tfno. 944016524, ela.b@aju.ej-gv.es
20010 **DONOSTIA**, Teresa de Calcuta, s/nº (Palacio Justicia), tfno. 943004358, ela.gi@aju.ej-gv.es
01008 **GASTEIZ**, Avda. de Gasteiz 18 (Palacio Justicia), tfno. 945004825, junta-ela@aju.ej-gv.es
31004 **IRUÑA**, Iturralde y Suit (frente al nº 10), tfno. 948007930, fax 948009759.

"Ezinbestekoa ez bada, dokumentu honen copiarik ez atera. Lagundu ingurumena zaintzen, denon ardura da."
"No realice copias de este documento, a no ser que sea verdaderamente necesario. Colaborar a respetar el medio ambiente, es cosa de todos"

- ❖ Jardun prebentiboaren plangintza. Baita oroitzapen txostenak edo neurketa kontrolak, enpresetan auditoriek egiten duten bezalakoa.
- ❖ Ez barne prebentzio zerbitzurik ez eta kanpokorik. 1997an Prebentzio zerbitzuen araudia indarrean sartu zen , orain dela hamaika urte, eta oraindik zerbitzu gabe jarraitzen dugu.
- ❖ Ez dira larraldietako neurriak ezarri.
- ❖ Autoprotekzio edo auto babeserako planak ezarri gabe daude, are gehiago, egin zirenak eguneratu gabe aurkitzen dira, aspaldidanik, Justiziako eraikuntzetan, lehergaiekin ere, eraso ugari jasan izan ditugunarren,
- ❖ Arrisku larri eta berehalako baten aurrean hartu beharreko neurriak ere ez ditugu.
- ❖ Amatasunaren babesari buruzko legedia ere ez du betetzen.
- ❖ Langileon informazio, kontsulta eta parte hartze eskubideak hausten ditu.
- ❖ Justiziako langileriaren gehingoarentzat prestakuntza ia existitu ere ez da egiten, existitzen denean urria eta desegokia da, eta gainera ez da legeak agintzen duena.
- ❖ Laneko jazarpena eta antzerako patologiak ekiditzeko, egin beharreko arrisku psikosozialen aurkako ekintzak ez dira aurrera eramaten.
- ❖ Justizia eraikuntzetan lanean ari diren entresa ezberdinen arteko koordinaziorik ez da existitzen
- ❖ Lan lekuen baldintzen araudiaren gutxiengo xedapenak ez dira errrespetatzen. Laneko ergonomiarekiko egin diren

gomendioak ez dira kontutan hartzen. Ez eta lan postu berri bat diseinatzen denean ere.

Goian aipatutako adibide guztiek **Lan Arriskuen Prebentzio arloan, arau hauste larriak suposatzen dute** eta horrela isladatuta gelditzen da 5/2000 errege legegintza dekretuan, honek orden sozialeko arau hausteei eta zigorrei buruzko araudia onartzen duelarik.

Salaketa honen funtsa, ELAk arlo zehatz hontan Euskal Autonomi Erkidegoko Justizi Jauregui guztietan egindako lanean aurkitzen dugu.

Egindako lanak erakutsi digu, Justizia Sailak, Laneko arriskuen prebentziorako legea ezartzeko borondate politiko gutxi duela.

2006, 2007, 2008 urteetan zehar **ELAko delegatuok**, Autonomi Erkidegoko eraikuntza judizialen egoerari buruzko txosten ezberdinak egin ditugu, eta lan arriskuen prebentzioaren benetako egoera zein den egiaztatu dugu, hainbat eta hainbat eskaera luzatu dizkiogu Justizia Sailari legea eta erreglamenduak bete ditzan. Eta gure eskaeren aurrean justizia sailak zer egin du??? Ezer ere ez. Egi guztia esateko eman diren aurrerapausu apurrak **ELAtik**, guk bultzatutakoak izan dira, baina hala ere, legearen haustura garrantzitsuenak ez dira konpondu. Aurreko gertaera guzti hauek jarraian laburbiltzen diren salaketak egitera eraman gaitu:

1.- LAN ETA GIZARTE SEGURANTZAKO IKUSKARITZAREN aurrean salaketak 2006an. Ondorioz, ikuskatzaileek, errekerimendu ezberdinak egin zizkioten Justizi Sailari, hala eta guztiz ere, gaur egun, errekerimendu hoiek bete gabe daude.

2.-Euskal Administrazio Publikoen Eremuan, lan arriskuen prebentzio arloko arauak ez betetzeagatiko neurri zuzentzaileak ezartzeko prozeduraren hasieraren eskaera OSALAN aurrean.

3.- LAN ETA GIZARTE SEGURANTZAKO IKUSKARITZA aurrean salaketak 2008an. Azken hauek, aurretiaz Osalanetik emandako

erantzunaren ondorioz. Izatez, OSALANek erantzun ziguna zera izan zen: goian aipatutako neurri zuzentzaileak ezartzeko prozedura aurrera ateratzeko langilerik izendatuta ez zutela.

ELAren partetik jada, bide guztiak agortu ditugu; legeak betetzen ez dituen, legeen bermatzaile den administrazio honetan, administrazioak berak bere burua ikuskatu eta bere burua zigortu behar duenean, galdera bat bakarra egitea gelditzen zaigu, NORK ZIGORTZEN DU ZIGORTZAILEA???

Euskal Autonomi Erkidegoko Justizi Jauregietan bizi ditugun gertaerek, Justizi Sailak publizitate kanpainetan dioena bertan behera uzten dute, eta gauza bat baino ez dute egiaztatzen, propaganda hutsa baino ez dela.

Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza sailak, administrazioa den einean, Lan Arriskuen Prebentziorako legea betearazi behar du, bestalde, enplegu emaile den aldetik, legea bete behar du; hau da, beste enpresa guztientzat eredu eta erreferente bilakatu beharko litzateke.

Hala ere, Lan Arriskuen Prebentziorako legea ez betetzeak begi bistan uzten digu, osasun eta lan-segurtasuna ez direla lehentasunezkoak. Arlo hontara zuzendutako baliabide eza bere etxean ere agerian gelditu delako. Gauzak honela, ez dakigu enpresa pribatuan osasun eta lan arloko legea betearazteko gai izango diren.

ELA –JUSTIZIAkoontzat, egoera hau onartezina da, eta berriro ere, aipatutako salaketei irtenbide bat ematea eskatzen diogu JUsizia, lan eta Gizarte segurantzza sailari. Gaur egun daukagun egoerari irtenbidea emateko beharrezkoak diren baliabideak erabil ditzala, JUsiziako langile guztien ongizaterako eta amaiagabeko hutsune eta urritasun hauek konpontzeko.